



NAFARROAKO ARARTEKOAREN TRATAMENDU JARDUEREN ERREGISTROA

1.0 bertsioa

2024/02/06

EDUKIEN AURKIBIDEA

I. INFORMAZIO OROKORRA	2
1. Aplikatu beharreko araudia.....	2
2. Tratamenduaren arduraduna.....	2
3. Datuen babeserako ordezkaria.....	2
4. Tratamenduaren legitimazioa: oinarri juridikoa	2
5. Kontserbazio epea	3
6. Segurtasun neurriak	4
7. Interesdunen eskubideak	4
8. Tratamendu jarduerak	5
II. TRATAMENDU JARDUERAK	5
1. Kexak	5
2. Kontsultak	7
3. Zerbitzu publikoak hobetzeko proposamenak.....	8
4. Bitartekaritza lanak	10
5. Agenda instituzionala eta bilerak kolektibo eta elkarteekin	12
6. Erreklamazioak eta iradokizunak.....	13
7. Ekonomia eta finantza kudeaketa, aurrekontu kudeaketa eta kontabilitate kudeaketa	15
8. Langileen eta prestakuntza beken kudeaketa.....	16
9. Barneko informazio sistema	18
10. Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak.....	19
11. DBEOaren eskubideak baliatzeko eskaerak.....	20
12. Segurtasun arrakalak	21
13. Gai orokorrak.....	22



I. INFORMAZIO OROKORRA

1. Aplikatu beharreko araudia

Datu pertsonalen babesarekin zerikusia duen guztian, Nafarroako Ararteko erakundeak honako hauen arabera jarduten du:

- a. Europako Parlamentuaren 2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa (DBEO),
- b. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa (DBLO),
- c. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea,
- d. Aplikatu beharreko gainerako legeak; besteak beste, ekainaren 28ko Telekomunikazioei buruzko 11/2022 Lege Orokorra eta otsailaren 20ko 2/2023 Legea, arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena.

2. Tratamenduaren arduraduna

Nafarroako arartekoa

Helbidea: Emilio Arrieta kalea 12, behea, 31002 Iruña, Nafarroa

Telefonoa: 948-203571

Helbide elektronikoa: info@defensornavarra.es

3. Datuen babeserako ordezkaria

Larraby Electrónica y Comunicación, S.L.

Helbidea: Idoia kalea 4, 1 ezk., 31180 Zizur Nagusia, Nafarroa

Helbide elektronikoa: dpd@defensornavarra.es

4. Tratamenduaren legitimazioa: oinarri juridikoa

DBEOaren eta gainerako garapen arauen ondorioetarako, Nafarroako Arartekoa agintaritza publikoa da, eta agintzen dizkioten eginkizun publikoak betetzen ditu:

- a. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 18 ter artikulua, urriaren 27ko 7/2010 Lege Organikoak emandako idazketan;



- b. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea (maiatzaren 17ko 6/2018 Foru Legeak aldatua);
- c. Apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzkoa;
- d. Maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa;
- e. Nafarroako Arartekoaren eginkizunak indartzen eta zabaltzen joan diren beste lege batzuk, eta
- f. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Antolakuntza eta Jarduera Araudia.

Araudi hori oinarri hartuta, Nafarroako Arartekoak ordenamendu juridikoak esleitu dizkion eginkizunak betez egiten duen datu pertsonalen tratamenduak ez du behar interesdunen baimenik, eta haien datu pertsonalak, hala badagokio, administrazio eta erakunde publikoei jakinarazi ahal izanen zaizkie, legea betetzeko.

Adingabeen datu pertsonalen tratamenduari ezarritako mugak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 7. artikuluan ezarritakoak, ez dira aplikagarriak erakundearen, 4/2000 Foru Legearen 19.1 artikulua araberak. Artikulu horrek ezartzen du adingabetasuna ezin dela oztopo izan Nafarroako Arartekora jotzeko, eta *“interes legitimo bat argudiatzen duen pertsona orok, naturala zein juridikoa dela ere, inolako murrizketarik gabe”* jo dezake erakundera.

5. Kontserbazio epea

A. Orokorra

Oro har, Espainiako ondare historikoari buruzko uztailaren 25eko 16/1985 Legearen 55. artikulua araberak, pertsonen edo erakunde publikoen eskubide eta betebeharren froga-balioa galtzen denean ezabatuko da dokumentazioa.

B. Bestelakoak

a) 16/1985 Legean jasota ez dagoen dokumentazioa eta barneko informazio sistema

16/1985 Legearen esparruan jaso ezin den dokumentazioan sartutako datu pertsonalak tratatzen badira, DBEOan eta DBLOan aurreikusitakoaren araberak, bildu diren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira datu horiek.



b) Erantzungailu automatikoa

Telefonoko erantzungailuaren ahotsak ofizioz eta kopiarik gabe ezabatuko dira 24 orduko epean edo, hala badagokio, lehenengo egun baliodunean.

6. Segurtasun neurriak

Arriskuari egokitutako segurtasun maila bermatzeko ezarritako segurtasun neurri teknikoak eta antolakuntzakoak, DBEOaren 32. artikuluan ezarritakoaren arabera, hauek dira:

- Nafarroako Arartekoak baimendutako langileak baino ezin izanen dira agiriaren artxiboetara sartu;
- Tokiko sare informatikorako, espedienteak kudeatzeko aplikazio informatikorako eta plataforma teknologikorako sarbidea, segurtasun kopien eta errepliken sistemarako sarbidea barne, langile bakoitzarentzat mugatua da, Nafarroako Arartekoak ezarritako baimenen arabera.

7. Interesdunen eskubideak

Aplikatu beharreko araudiak datu pertsonalak eskuratzeko aitortzen dizkien eskubideak dituzte interesdunek, baita datu pertsonalen jatorria ezagutzeko eskubidea ere, datu horiek haiengandik eskuratu ez badituzte.

Interesdunek baliatu ahal izanen dituzte datuak zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, tratamenduari aurka egiteko, datuak eramateko eta adostasuna kentzeko eskubideak, baldin eta datu pertsonalen tratamendua Nafarroako Arartekoaren eskumenekoa bada, ez badio eragiten erakunde publikoen dokumentuak eta artxiboak gordetzeari aplikatu beharreko legeriari, eta bat badator Nafarroako Arartekoaren Foru Legearekin eta harekin lotutako gainerako araudiarekin.

Datuak zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, tratamenduari aurka egiteko, datuak eramateko eta adostasuna kentzeko eskubideak baliatzeko, interesdunak idatzizko eskabide bat aurkeztu beharko dio tratamenduaren arduradunari, bere nortasuna egiaztatzen duen agiri batekin batera.

Datuak zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, tratamenduari aurka egiteko, datuak eramateko eta adostasuna kentzeko eskubideak baliatzearekin lotuta ematen diren egintzen aurka, interesdunek honako hauek egiten ahal dituzte:

- Datuak babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzea zuzenean eta modu errazean, komunikazioen konfidentzialtasuna bermatuta; edo
- Kontrol agintaritzari erreklamazio bat aurkeztea.



8. Tratamendu jarduerak

Hona hemen Nafarroako Ararteko erakundean egiten diren tratamendu jarduerak:

1. Kexak;
2. Kotsultak;
3. Zerbitzu publikoak hobetzeko proposamenak;
4. Bitartekaritza lanak;
5. Agenda instituzionala eta bilerak kolektibo eta elkarteekin;
6. Erreklamazioak eta iradokizunak;
7. Ekonomia eta finantza kudeaketa, aurrekontu kudeaketa eta kontabilitate kudeaketa;
8. Langileen kudeaketa;
9. Barneko informazio sistema;
10. Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak;
11. DBEOaren eskubideak baliatzeko eskaerak;
12. Segurtasun arrakalak; eta
13. Gai orokorrak.

II. TRATAMENDU JARDUERAK

1. Kexak

A. Tratamenduaren helburuak

Herritarrek aurkeztutako kexak jasotzea eta erregistratzea, baita haiek kudeatzea eta izapidetzea ere, Nafarroako Arartekoaren eginkizun nagusia betetzeko.

B. Tratamenduaren zilegitasuna

Betetzea:

- Tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharra (DBEOaren 6.1.c) artikulua eta DBLOaren 8.1 artikulua); eta
- Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean gauzatutako eginkizuna (DBEOaren 6.1.e) artikulua eta DBLOaren 8.2 artikulua).



C. Interesdunen kategoriak

Bere kabuz edo legezko ordezkari baten bidez inolako murrizketarik gabe interes legitimo bat argudiatzen duen eta erakundean kexa bat aurkezten duen pertsona oro (4/2000 Foru Legearen 19.1 artikulua), naturala zein juridikoa dela ere.

D. Datu pertsonalen kategoriak

Identifikazio datuak Izen-abizenak, identifikazio agiria, posta helbidea, posta elektronikoa, telefonoa, sinadura.

Datuen kategoria Kexan bertan adierazitako asmoarekin zerikusia dutenak bereziak

Beste datu batzuk Familiari buruzko datuak, osasunari buruzkoak, desgaitasunari eta mendekotasunari buruzkoak, zergei eta ondareari buruzko informazioa, lanari buruzko datuak, etxebizitzari buruzko informazioa, prestakuntzarekin eta hezkuntzarekin lotutako datuak, informazio judiziala eta espetxe informazioa, administrazio publikoei buruzko datuak eta kexan adierazitako asmoari lotutako beste edozein informazio.

E. Hartzaileen kategoriak

- Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoak, 4/2000 Foru Legearen 1.3 artikuluan zehazten diren moduan;
- Espainiako Herriaren defendatzailea;
- Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritza;
- Autonomia Erkidegoetako herriaren defendatzaileak;
- Organo judizialak;
- Fiskaltza;
- Itzulpen eta komunikazio instituzionaleko zerbitzuen enpresa esleipendunak; eta
- Beste pertsona batek aurkeztutako kexa jakin batean erasanak, kaltetuak edo, oro har, interesdunak izategatik interes legitimoa dutela egiaztatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.



F. Datuen jatorria

- Interesdunak, Nafarroako Arartekoari aurkeztutako eskaeraren, eskabidearen, erakundean idatzitako idazkiaren, formularioaren edo mezu elektronikoaren bidez; eta
- Administrazio publikoak eta gainerako hartzailleak, espedientea izapidetzeko prozesuan emandako informazioaren bidez.

Interesdunak hirugarrenen datuak ematen baditu, bere gain hartzen du DBEOaren 14. artikuluan aurreikusitako guztiaren berri aldeztatik emateko erantzukizuna.

G. Nazioarteko datu transferentziak

Ez daude aurreikusita.

2. Kotsultak

A. Tratamenduaren helburuak

Herritarrek egindako kotsultak jasotzea eta erregistratzea, baita haien kudeatzea eta izapidetzea ere, Nafarroako Arartekoaren eginkizun nagusia betetzeko.

B. Tratamenduaren zilegitasuna

Betetzea:

- Tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharra (DBEOaren 6.1.c) artikulua eta DBLOaren 8.1 artikulua); eta
- Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean gauzatutako eginkizuna (DBEOaren 6.1.e) artikulua eta DBLOaren 8.2 artikulua).

C. Interesdunen kategoriak

Bere kabuz edo legezko ordezkari baten bidez inolako murrizketarik gabe interes legitimo bat argudiatzen duen eta erakundean kotsulta bat egiten duen pertsona oro (4/2000 Foru Legearen 19.1 artikulua), naturala zein juridikoa dela ere.

D. Datu pertsonalen kategoriak

Identifikazio datuak Izen-abizenak, identifikazio agiria, posta helbidea, posta elektronikoa, telefonoa, sinadura.



Datuen kategoria Kontsultan bertan adierazitako asmoarekin zerikusia bereziak dutenak.

Beste datu batzuk Familiari buruzko datuak, osasunari buruzkoak, desgaitasunari eta mendekotasunari buruzkoak, zergei eta ondareari buruzko informazioa, lanari buruzko datuak, etxebizitzari buruzko informazioa, prestakuntzarekin eta hezkuntzarekin lotutako datuak, informazio judiziala eta espetxe informazioa, administrazio publikoei buruzko datuak eta kontsultan adierazitako asmoari lotutako beste edozein informazio.

E. Hartzaileen kategoriak

- Itzulpen eta komunikazio instituzionaleko zerbitzuen enpresa esleipendunak; eta
- Beste pertsona batek aurkeztutako kontsulta jakin batean erasanak, kaltetuak edo, oro har, interesdunak izateagatik interes legitimoa dutela egiaztatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

F. Datuen jatorria

Interesdunak, Nafarroako Arartekoari aurkeztutako eskaeraren, eskabidearen, erakundean idatzitako idazkiaren, formularioaren edo mezu elektronikoaren bidez.

Interesdunak hirugarrenen datuak ematen baditu, bere gain hartzen du DBEOaren 14. artikuluan aurreikusitako guztiaren berri aldeztatik emateko erantzukizuna.

G. Nazioarteko datu transferentziak

Ez daude aurreikusita.

3. Zerbitzu publikoak hobetzeko proposamenak

A. Tratamenduaren helburuak

Herritarrek zerbitzu publikoak hobetzeko aurkeztutako proposamenak jasotzea eta erregistratzea, baita haiek kudeatzea eta izapidetzea ere, Nafarroako Arartekoaren eginkizun nagusia betetzeko.

B. Tratamenduaren zilegitasuna

Betetzea:



- Tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharra (DBEOaren 6.1.c) artikulua eta DBLOaren 8.1 artikulua); eta
- Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean gauzatutako eginkizuna (DBEOaren 6.1.e) artikulua eta DBLOaren 8.2 artikulua).

C. Interesdunen kategoriak

Bere kabuz edo legezko ordezkari baten bidez inolako murrizketarik gabe interes legitimo bat argudiatzen duen eta erakundean zerbitzu publikoak hobetzeko proposamen bat aurkezten duen pertsona oro (4/2000 Foru Legearen 19.1 artikulua), naturala zein juridikoa dela ere.

D. Datu pertsonalen kategoriak

Identifikazio datuak	Izen-abizenak, identifikazio agiria, posta helbidea, posta elektronikoa, telefonoa, sinadura.
Datuen kategoria bereziak	Zerbitzu publikoak hobetzeko proposamenean bertan adierazitako asmoarekin zerikusia dutenak.
Beste datu batzuk	Familiari buruzko datuak, osasunari buruzkoak, desgaitasunari eta mendekotasunari buruzkoak, zergei eta ondareari buruzko informazioa, lanari buruzko datuak, etxebizitzari buruzko informazioa, prestakuntzarekin eta hezkuntzarekin lotutako datuak, informazio judiziala eta espetxe informazioa, administrazio publikoei buruzko datuak eta zerbitzu publikoak hobetzeko proposamenean adierazitako asmoari lotutako beste edozein informazio.

E. Hartzaileen kategoriak

- Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoak, 4/2000 Foru Legearen 1.3 artikuluan zehazten diren moduan;
- Espainiako Herriaren defendatzailea;
- Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritza;
- Autonomia Erkidegoetako herriaren defendatzaileak;
- Organo judizialak;
- Itzulpen eta komunikazio instituzionaleko zerbitzuen enpresa esleipendunak; eta



- Beste pertsona batek zerbitzu publikoak hobetzeko aurkeztutako proposamen jakin batean erasanak, kaltetuak edo, oro har, interesdunak izateagatik interes legitimoa dutela egiaztatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

F. Datuen jatorria

- Interesdunak, Nafarroako Arartekoari aurkeztutako eskaeraren, eskabidearen, erakundearen idatzitako idazkiaren, formularioaren edo mezu elektronikoaren bidez; eta
- Administrazio publikoak eta gainerako hartzaileak, espedientea izapidetzeko prozesuan emandako informazioaren bidez.

Interesdunak hirugarrenen datuak ematen baditu, bere gain hartzen du DBEOaren 14. artikuluan aurreikusitako guztiaren berri aldeaz aurretik emateko erantzukizuna.

G. Nazioarteko datu transferentziak

Ez daude aurreikusita.

4. Bitartekaritza lanak

A. Tratamenduaren helburuak

Administrazio eta erakunde publikoek, herritar taldeek eta pertsona fisiko eta juridikoek aurkeztutako bitartekaritza eskaerak jasotzea eta erregistratzea, baita haiek kudeatzea eta izapidetzea ere, Nafarroako Arartekoaren eginkizun nagusia betetzeko.

B. Tratamenduaren zilegitasuna

Betetzea:

- Tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharra (DBEOaren 6.1.c) artikulua eta DBLOaren 8.1 artikulua); eta
- Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean gauzatutako eginkizuna (DBEOaren 6.1.e) artikulua eta DBLOaren 8.2 artikulua).

C. Interesdunen kategoriak

- Beste administrazio eta erakunde publiko batzuk;
- Herritar taldeak; eta



- Pertsona fisiko edo juridikoak, gaiak interes orokorrerako, sozialerako edo komunitariorako garrantzia badu.

D. Datu pertsonalen kategoriak

Identifikazio datuak	Izen-abizenak, identifikazio agiria, posta helbidea, posta elektronikoa, telefonoa, sinadura.
Datuen kategoria bereziak	Bitartekaritzako eskaeran bertan adierazitako asmoarekin zerikusia dutenak.
Beste datu batzuk	Familiari buruzko datuak, osasunari buruzkoak, desgaitasunari eta mendekotasunari buruzkoak, zergei eta ondareari buruzko informazioa, lanari buruzko datuak, etxebizitzari buruzko informazioa, prestakuntzarekin eta hezkuntzarekin lotutako datuak, informazio judiziala eta espetxe informazioa, administrazio publikoei buruzko datuak eta bitartekaritzako eskaeran adierazitako asmoari lotutako beste edozein informazio.

E. Hartzaileen kategoriak

- Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoak, 4/2000 Foru Legearen 1.3 artikuluan zehazten diren moduan;
- Nafarroako Arartekoarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmen baten esparruan bitartekaritza eginkizunak gauzatzeko eskuordetzen den pertsona fisiko edo juridikoa;
- Itzulpen eta komunikazio instituzionaleko zerbitzuen enpresa esleipendunak; eta
- Bitartekaritza lan jakin batean erasanak, kaltetuak edo, oro har, interesdunak izateagatik interes legitimoa dutela egiaztatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak.

F. Datuen jatorria

- Interesdunak, Nafarroako Arartekoari aurkeztutako eskaeraren, eskabidearen, erakundearen idatzitako idazkiaren, formularioaren edo mezu elektronikoaren bidez; eta
- Administrazio publikoak eta gainerako hartzaileak, espedientea izapidetzeko prozesuan emandako informazioaren bidez.



Interesdunak hirugarrenen datuak ematen baditu, bere gain hartzen du DBEOaren 14. artikuluan aurreikusitako guztiaren berri aldeaz aurretik emateko erantzukizuna.

G. Nazioarteko datu transferentziak

Ez daude aurreikusita.

5. Agenda instituzionala eta bilerak kolektibo eta elkarteekin

A. Tratamenduaren helburuak

Agenda instituzionala eta kolektiboekin, elkarteekin eta erakundeekin egindako bilerak kudeatzea eta zabaltzea, baita jardunaldi, tailer eta hitzaldiak kudeatzea, koordinatzea, haietan parte hartzea eta haien berri ematea ere.

B. Tratamenduaren zilegitasuna

- Interesdunaren baimena (DBEOaren 6.1.a) artikulua eta DBLOaren 6. artikulua); eta
- Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean gauzatutako eginkizuna betetzea (DBEOaren 6.1.e) artikulua eta DBLOaren 8.2 artikulua).

C. Interesdunen kategoriak

- Kargu publikoak, erakundeen ordezkariak eta erakunde eta administrazio publikoetako harremanetarako pertsonak.
- Nafarroako Arartekoaren bileretan parte hartzen duten kolektibo, elkarte eta erakundeen harremanetarako pertsonak eta legezko ordezkariak.
- Beren kabuz edo legezko ordezkari baten bitartez erakundeak antolatzen eta sustatzen dituen ekitaldi, jardunaldi, tailer eta hitzaldietan parte hartzen duten pertsona natural edo juridikoak.
- Enpresetako, komunikabideetako eta Nafarroako Arartekoarekin protokolo edo ordezkarietza arrazoiengatik harremana duen edozein erakundetako harremanetarako pertsonak eta legezko ordezkariak.

D. Datu pertsonalen kategoriak

Identifikazio datuak Izen-abizenak, identifikazio agiria, posta helbidea, posta elektronikoa, telefonoa, sinadura.



Datuen bereziak	kategoria Bileretan eta ekitaldietan ematen diren eta kolektiboaren, elkartearen edo erakundearen xedearekin eta helburuekin zerikusia duten datuak.
Beste datu batzuk	Lanari buruzko datuak, prestakuntzarekin eta hezkuntzarekin zerikusia duten datuak, administrazio publikoekin zerikusia dutenak eta egindako bileren eta ekitaldien xedearekin zerikusia duen beste edozein informazio.

E. Hartzaileen kategoriak

Itzulpen eta komunikazio instituzionaleko zerbitzuen enpresa esleipendunak.

F. Datuen jatorria

- Interesdunak, Nafarroako Arartekoari aurkeztutako eskaeraren, eskabidearen, formularioaren edo mezu elektronikoen bidez;
- Nafarroako Arartekoarekin egiten diren bileretan parte hartzen duten kolektibo, elkarte eta entitateetako harremanetarako pertsonak eta legezko ordezkariak, bileretan edo beste une batzuetan —lehenago edo geroago— emandako informazioaren bidez;
- Kargu publikoak, erakundeetako ordezkariak eta erakunde, administrazio publiko, enpresa eta komunikabideetako harremanetarako pertsonak, baita Nafarroako Arartekoak bere eskumenak baliatzean harekin harremana duen edozein erakunde ere.

Interesdunak hirugarrenen datuak ematen baditu, bere gain hartzen du DBEOaren 14. artikuluan aurreikusitako guztiaren berri aldeztatik emateko erantzukizuna.

G. Nazioarteko datu transferentziak

Ez daude aurreikusita.

6. Erreklamazioak eta iradokizunak

A. Tratamenduaren helburuak

Herritarrek erakundeak ematen dituen zerbitzuen funtzionamenduaren inguruan egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak jasotzea eta erregistratzea, baita haiek kudeatzea eta izapidetzea ere.



B. Tratamenduaren zilegitasuna

- Interesdunaren baimena (DBEOaren 6.1.a) artikulua eta DBLOaren 6. artikulua); eta
- Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean gauzatutako eginkizuna betetzea (DBEOaren 6.1.e) artikulua eta DBLOaren 8.2 artikulua).

C. Interesdunen kategoriak

Bere kabuz edo legezko ordezkari baten bidez Nafarroako Arartekoaren aurrean erreklamazio edo iradokizun bat aurkezten duen pertsona oro, naturala edo juridikoa dela ere.

D. Datu pertsonalen kategoriak

Identifikazio datuak Izen-abizenak, identifikazio agiria, posta helbidea, posta elektronikoa, telefonoa, sinadura.

Datuen kategoria Erreklamazioan edo iradokizunean sartuta egon bereziak daitezkeenak.

Beste datu batzuk Erreklamazioan edo iradokizunean sartuta egon daitekeen beste edozein informazio.

E. Hartzaileen kategoriak

Ez da aurreikusten datuak jakinarazterik.

F. Datuen jatorria

Interesdunak, Nafarroako Arartekoari aurkeztutako eskaeraren, eskabidearen, erakundean idatzitako idazkiaren, formularioaren edo mezu elektronikoaren bidez.

Interesdunak hirugarrenen datuak ematen baditu, bere gain hartzen du DBEOaren 14. artikuluan aurreikusitako guztiaren berri aldeztatik emateko erantzukizuna.

G. Nazioarteko datu transferentziak

Ez daude aurreikusita.



7. Ekonomia eta finantza kudeaketa, aurrekontu kudeaketa eta kontabilitate kudeaketa

A. Tratamenduaren helburuak

Nafarroako Arartekoaren jardura ekonomiko-finantzariotik eratorritako gastu eta kontratazio espedienteak, dokumentuak eta kontabilitate egoerak kudeatzea, izapidetzea, kontrolatzea eta haien jarraipena egitea.

B. Tratamenduaren zilegitasuna

- Interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo, hark eskatuta, kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko beharrezkoa den tratamendua (DBEOaren 6.1.b) artikulua); eta
- Tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharrak bat betetzea (DBEOaren 6.1.c) artikulua eta DBLOaren 8.1 artikulua).

C. Interesdunen kategoriak

Hartzekodunak, hornitzaileak, lizitatzailak, kontratistak, esleipendunak, zordunak, Nafarroako Arartekoaren zerbitzura dauden langileak eta, oro har, erakundearekin harreman juridikoa duten pertsona fisiko eta juridikoak, baita haien legezko ordezkariak eta harremanetarako pertsonak ere.

D. Datu pertsonalen kategoriak

Identifikazio datuak Izen-abizenak, identifikazio agiria, posta helbidea, posta elektronikoa, telefonoa, sinadura.

Datuen kategoria Ez daude aurreikusita.
berezikiak

Beste datu batzuk Familiari buruzko datuak, osasunari buruzkoak, desgaitasunari eta mendekotasunari buruzkoak, zergei eta ondareari buruzko informazioa, lanari buruzko datuak, prestakuntzarekin eta hezkuntzarekin lotutako datuak, informazio judiziala eta espetxe informazioa eta administrazio publikoei buruzko datuak.

E. Hartzaileen kategoriak

- Nafarroako Zerga Ogasuna;
- Nafarroako Kontuen Ganbera;



- Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Kontratazio Ataria;
- Nafarroako Parlamentua; eta
- Finantza erakundeak.

F. Datuen jatorria

Interesdunak, Nafarroako Arartekoarekin duten harreman juridikoa baliatzean, baita haien legezko ordezkariak eta harremanetarako pertsonak ere.

Interesdunak hirugarrenen datuak ematen baditu, bere gain hartzen du DBEOaren 14. artikuluan aurreikusitako guztiaren berri aldeaz aurretik emateko erantzukizuna.

G. Nazioarteko datu transferentziak

Ez daude aurreikusita.

8. Langileen eta prestakuntza beken kudeaketa

A. Tratamenduaren helburuak

Nafarroako Arartekoaren zerbitzura dauden langileak eta prestakuntza bekek kudeatzea, honako hauek barne:

- Langileak hautatzeko eta hornitzeko prozesuak;
- Altak, bajak eta Gizarte Segurantzari edo kasuan kasuko araubide eta antzeko erakundeei eta aseguru konpainiei egin beharreko jakinarazpenak;
- Bateriaezintasunak, absentziak, baimenak eta oporrak kontrolatzea eta kudeatzea;
- Erakundean zerbitzuak ematen dituen pertsona bakoitzaren espediente pertsonala egitea, kudeatzea eta mantentzea;
- Nominak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak egitea eta kudeatzea;
- Prestakuntza; eta
- Laneko arriskuen prebentzioa.

B. Tratamenduaren zilegitasuna

- Interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo, hark eskatuta, kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko beharrezkoa den tratamendua (DBEOaren 6.1.b) artikulua); eta



- Tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharrak bat betetzea (DBEOaren 6.1.c) artikulua eta DBLOaren 8.1 artikulua).

C. Interesdunen kategoriak

Gaur egun erakundean lan egiten duten edo lehenago egin duten pertsonak (Nafarroako Arartekoa, behin-behineko langileak, funtzionarioak eta kontratatutako langileak) eta prestakuntza beken emakidadunak.

Aurreko lanpostuak betetzeko deialdi edo prozeduraren batean edo prestakuntza beken deialdietan parte hartu duten pertsonak.

D. Datu pertsonalen kategoriak

Identifikazio datuak	Izen-abizenak, identifikazio agiria, posta helbidea, posta elektronikoa, telefonoa, sinadura.
Datuen bereziak	Osasunari buruzko datuak (gaixotasunagatikotako bajak, laneko istripuak eta desgaitasun maila), afiliazio sindikalari buruzko datuak.
Beste datu batzuk	Familiari buruzko datuak, osasunari buruzkoak, zergei eta ondareari buruzko informazioa, lanari buruzko datuak, prestakuntzarekin eta hezkuntzarekin lotutako datuak eta administrazio publikoei buruzko datuak.

E. Hartzaileen kategoriak

- Nafarroako Zerga Ogasuna;
- Gizarte Segurantza eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia;
- Nafarroako Gobernuko Montepioen eta Gizarte Onuren Atala eta funtzionarioen beste mutualitate batzuk;
- Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoak eta Nafarroako Arartekoaren zerbitzura dauden langileek jatorri dituzten beste administrazio publiko batzuk.
- Erakundeko langileen bizi eta istripu aseguruaren kontratuaren esleipendun den enpresa;
- Nafarroako Gobernuko Laneko Arriskuen Prebentzioko Atala;
- Langileen osasun azterketak egiteko esleipena duen enpresa;
- Nafarroako Kontuen Ganbera;
- Nafarroako Parlamentua; eta



- Finantza erakundeak.

F. Datuen jatorria

Interesdunak, Nafarroako Arartekoari aurkeztutako eskaeraren, eskabidearen, formularioaren edo mezu elektronikoaren bidez; baita harekin duen lan harremanaren edo harreman juridikoaren bidez eta lanpostuak betetzeko deialdietan edo prozeduretan edo prestakuntza beken deialdietan parte hartuz ere.

Interesdunak hirugarrenen datuak ematen baditu, bere gain hartzen du DBEOaren 14. artikuluan aurreikusitako guztiaren berri aldeztatik emateko erantzukizuna.

G. Nazioarteko datu transferentziak

Ez daude aurreikusita.

9. Barneko informazio sistema

A. Tratamenduaren helburuak

Lan edo lanbide testuinguru batean arau hauste penal edo administratibo larri edo oso larritzat jo daitezkeen edozein ekintzaren edo ez-egiteren edo Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau hauste izan daitezkeenen berri ematen duten pertsona fisikoak babestea.

B. Tratamenduaren zilegitasuna

Tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharrak bat betetzea (DBEOaren 6.1.c) artikulua eta DBLOaren 8.1 artikulua); betebeharrak hori arau hausteen eta ustelkeriaren aurkako borrokaren berri ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 30. artikulutik eratorria da.

C. Interesdunen kategoriak

- Lan edo lanbide testuinguru batean egindako arau hausteei buruzko informazioa lortu duten pertsona fisiko informatzaileak;
- Ustezko arau haustea jakinarazten denean informazio hori eragin duten pertsonak;
- Jakinarazitako informazioarekin lotutako beste pertsona batzuk; eta
- Barneko informazio sistemaren kudeaketan parte hartzen duten pertsonak.



D. Datu pertsonalen kategoriak

Identifikazio datuak Izen-abizenak, identifikazio agiria, posta helbidea, posta elektronikoa, telefonoa, sinadura.

Datuen bereziak kategoria Ez daude aurreikusita.

Beste datu batzuk Lanari buruzko datuak eta arau haustea egitearekin zerikusia duen beste edozein datu.

E. Hartzaileen kategoriak

- Agintaritza judiziala;
- Fiskaltza;
- Zigor, diziplina edo zehapen ikerketa baten esparruan eskumena duen administrazio agintaritza; eta
- Hirugarrenak, erakundearen neurri zuzentzaileak hartzeko edo, hala badagokio, bidezkoak diren zehapen edo zigor prozedurak izapidetzeko beharrezkoa denean.

F. Datuen jatorria

Interesdunak, Nafarroako Arartekoaren barneko informazio sistemaren arduradunari helarazitako eskaeraren, eskabidearen, formularioaren edo mezu elektronikoen bidez, edo harekin telefonoz izandako elkarrizketaren edo bileraren bidez.

G. Nazioarteko datu transferentziak

Ez daude aurreikusita.

10. Informazio publikoa eskuratzeko eskaerak

A. Tratamenduaren helburuak

Erakundearen esku dagoen informazio publikoa eskuratzeko eskaerak jasotzea eta erregistratzea, baita eskaera horiek kudeatzea eta izapidetzea ere.

B. Tratamenduaren zilegitasuna

- Interesdunaren baimena (DBEOaren 6.1.a) artikulua eta DBLOaren 6. artikulua); eta



- Tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharrak bat betetzea (DBEOaren 6.1.c) artikulua eta DBLOaren 8.1 artikulua); betebeharrak hori gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Legearen 2.2 artikulutik eratorria da.

C. Interesdunen kategoriak

Bere kabuz edo legezko ordezkari baten bidez erakundeari buruzko informazio publikoa eskuratzeko eskaera aurkezten duen pertsona oro, naturala edo juridikoa eta publikoa edo pribatua dela ere.

D. Datu pertsonalen kategoriak

Identifikazio datuak Izen-abizenak, identifikazio agiria, posta helbidea, posta elektronikoa, telefonoa, sinadura.

Datuen kategoria Informazio publikoa eskuratzeko eskaeran sartuta egon bereziak daitezkeenak.

Beste datu batzuk Eskaeran sartuta egon daitezkeen beste edozein informazio.

E. Hartzaileen kategoriak

Ez da aurreikusten datuak jakinarazterik.

F. Datuen jatorria

Interesdunak edo haien legezko ordezkariak, Nafarroako Arartekoari aurkeztutako eskaeraren, eskabidearen, idazkiaren, formularioaren edo mezu elektronikoaren bidez.

G. Nazioarteko datu transferentziak

Ez daude aurreikusita.

11. DBEOaren eskubideak baliatzeko eskaerak

A. Tratamenduaren helburuak

Interesdunek Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrek ezartzen dituen eskubideak baliatzeko egiten dituzten eskaerak jasotzea, kudeatzea eta erantzutea.



B. Tratamenduaren zilegitasuna

Tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharrak bat betetzea (DBEOaren 6.1.c) artikulua eta DBLOaren 8.1 artikulua).

C. Interesdunen kategoriak

Beren kabuz edo legezko ordezkari baten bidez Nafarroako Arartekoaren aurrean beren eskubideak baliatzen dituzten pertsona fisikoak.

D. Datu pertsonalen kategoriak

Identifikazio datuak Izen-abizenak, identifikazio agiria, posta helbidea, posta elektronikoa, telefonoa, sinadura.

E. Hartzaileen kategoriak

Ez da aurreikusten datuak jakinarazterik.

F. Datuen jatorria

Interesdunak edo haien legezko ordezkariak, Nafarroako Arartekoari edo datuen babeserako ordezkariari aurkeztutako eskaeraren, eskabidearen, idazkiaren, formularioaren edo mezu elektronikoaren bidez.

G. Nazioarteko datu transferentziak

Ez daude aurreikusita.

12. Segurtasun arrakalak

A. Tratamenduaren helburuak

Nafarroako Arartekoak ofizios edo hirugarren batek eskatuta ezagutzen dituen datu pertsonalen arrakalak kudeatzea eta ebaluatzea.

B. Tratamenduaren zilegitasuna

Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean gauzatutako eginkizuna betetzea (DBEOaren 6.1.e) artikulua eta DBLOaren 8.2 artikulua).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

Ekainaren 28ko Telekomunikazioei buruzko 11/2022 Lege Orokorra.



C. Interesdunen kategoriak

Pertsona juridikoak eta fisikoak, pertsona juridikoen ordezkariak barne.

D. Datu pertsonalen kategoriak

Identifikazio datuak Izen-abizenak, identifikazio agiria, posta helbidea, posta elektronikoa, telefonoa, sinadura.

E. Hartzaileen kategoriak

- Estatuko segurtasun indar eta kidegoak, fiskaltza edo segurtasun gorabeheren kudeaketaren arloan eskumena duten beste erakunde publiko batzuk; eta
- EBko kontrol agintaritzak, DBEOaren VII. tituluan ezartzen diren baterako ekintzen garapenaren esparruan.

F. Datuen jatorria

Interesdunak edo haien legezko ordezkariak, Nafarroako Arartekoari edo datuen babeserako ordezkariari aurkeztutako eskaeraren, eskabidearen, idazkiaren, formularioaren edo mezu elektronikoaren bidez.

G. Nazioarteko datu transferentziak

Ez daude aurreikusita.

13. Gai orokorrak

A. Tratamenduaren helburuak

Herritarrek aurkeztutako gai orokorrak jasotzea, erregistratzea, kudeatzea eta izapidetzea, baita erakundeko dokumentazioaren sarrerako eta irteerako erregistroa kudeatzea ere.

B. Tratamenduaren zilegitasuna

Betetzea:

- Tratamenduaren arduradunari aplikatu beharreko legezko betebeharra (DBEOaren 6.1.c) artikulua eta DBLOaren 8.1 artikulua); eta
- Interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean gauzatutako eginkizuna (DBEOaren 6.1.e) artikulua eta DBLOaren 8.2 artikulua).



C. Interesdunen kategoriak

Bere kabuz edo legezko ordezkari baten bitartez erakundearen erregistroaren bidez gai orokor bat edo edozein dokumentazio aurkezten duen edo aurrez deskribatutakoen artean jasota ez dagoen tratamendu jarduera bati buruz erakundearen jakinarazpenak jasotzen dituen pertsona natural edo juridiko oro.

D. Datu pertsonalen kategoriak

Identifikazio datuak	Izen-abizenak, identifikazio agiria, posta helbidea, posta elektronikoa, telefonoa, sinadura.
Datuen bereziak	Gai orokorrean bertan adierazitako asmoarekin zerikusia dutenak.
Beste datu batzuk	Familiari buruzko datuak, osasunari buruzkoak, desgaitasunari eta mendekotasunari buruzkoak, zergei eta ondareari buruzko informazioa, lanari buruzko datuak, etxebizitzari buruzko informazioa, prestakuntzarekin eta hezkuntzarekin lotutako datuak, informazio judiziala eta espetxe informazioa, administrazio publikoei buruzko datuak eta gai orokorrean adierazitako asmoari lotutako beste edozein informazio.

E. Hartzaileen kategoriak

- Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoak, 4/2000 Foru Legearen 1.3 artikuluan zehazten diren moduan;
- Espainiako Herriaren defendatzailea;
- Autonomia Erkidegoetako herriaren defendatzaileak;
- Itzulpen eta komunikazio instituzionaleko zerbitzuen enpresa esleipendunak; eta
- Interes legitimoa egiaztatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak, baita gainerako instituzio eta erakunde publikoak ere.

F. Datuen jatorria

- Interesdunak, Nafarroako Arartekoari aurkeztutako eskaeraren, eskabidearen edo mezu elektronikoaren bidez; eta
- Administrazio publikoak eta gainerako hartzaileak, espedientea izapidetzeko prozesuan emandako informazioaren bidez.



Interesdunak hirugarrenen datuak ematen baditu, bere gain hartzen du DBEOaren 14. artikuluan aurreikusitako guztiaren berri aldeaz aurretik emateko erantzukizuna.

G. Nazioarteko datu transferentziak

Ez daude aurreikusita.

